



R. M^ª Azkue

LITERATURA SARIAK

2023



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

bbkΘ

AGURRA

Bilbao Bizkaia Kutzak eta Euskaltzaindiak atsegin handiz argitaratzen dituzte bi erakundeon artean aspaldidanik idazle gazteentzat antolatu dituzten literatura sarien deialdiak.

Idazle handia izateko gaztetatik trebatu behar denez, R. M^a AZKUE izeneko sariak antolatzen ditugu, gure gazte eta gaztetxoak literaturara erakartzeko.

Hori dela eta, lehiaketa honetan parte hartzera bultzatu nahi ditugu literatura-sortzaile gazteak, ziur gaudelako euren ekarpenak mesede handia egingo diela gure hizkuntzari eta kulturari.

· OINARRIAK ·

Egileak eta lanak

1 · Sari hauetara euskaraz idatziriko edozein narrazio edo olerki-lan aurkez daiteke, egilearen bizilekua edo nazionalitatea edozein izanik, ondoko adin-tarteen barruan:

A maila: 2010, 2011, 2012 eta 2013an jaioak.

B maila: 2006, 2007, 2008 eta 2009an jaioak.

2 · Sariketa hauetara aurkezten diren lanak originalak eta inoiz argitaratu gabeak izango dira, eta ez da onartuko beste lanen baten itzulpen edo moldaketarik.

Halaber, ez da onartuko beste inon saritutako lanik.

3 · Ez Bilbao Bizkaia Kutzak, ez Euskaltzaindiak, ez dute erantzukizunik izango sortzaileek aurreko araua betetzen ez badute; beraz, egileen zintzotasunaren ardurapean geratzen da erantzukizuna. Baina egileek aurreko araua betetzen ez badute, erakunde antolatzaileek emandako saria itzultzeko eskatuko diete.

Lanen aurkezpena

4 · Lanak alderdi bakarretik idatzirik aurkeztuko dira, folio edo A4 neurriko orrietan. Idazle batek lan bat baino gehiago aurkezten badu, bereizi egingo ditu.

Egilearen datuak ezingo dira agertu aurkeztutako idazlane(t)an. Bestalde, lanaren hiru kopia bidali behar dira.

5 · Lanek gutxieneko luzera hauek izan beharko dituzte:

Mota	A maila	B maila
NARRAZIOA	2 orrialde	4 orrialde
OLERKIA	15 lerro	30 lerro

6 · Lanok aurkezteko epea **2024ko otsailaren 29n** amaituko da. Narrazio-olerkiak helbide honetara bidali behar dira:

EUSKALTZAINDIA
Plaza Barria, 15
48005 BILBO

7 · Lanarekin batera, gutun-azal itxi bat bidaliko da datu hauek adierazita:

Azalean:

- Lan mota: Narrazioa ala Olerkia
- Lanaren izenburua
- Egilearen jaioteguna

Barruan:

- Egilearen izen-deiturak
- Helbidea
- **Egilearen edo gurasoen posta elektronikoa**
- **Egilearen edo gurasoen telefonoa**
- Irakasle edo laguntzailearen izena
- Ikastetxearen izena

Epaimahaiak

8 · Literatura arloko pertsona adituek osatuko dituzte epaimahaiak eta Euskaltzaindiak izendatuko ditu. Bilbao Bizkaia Kutzak epaimahaietako idazkariak izendatu ahal izango ditu, eta horiek hitza izango dute, baina ez botorik.

9 · Epaimahaien erabakiak behin betikoak izango dira.

Sariak

10 · Bilbao Bizkaia Kutzak emango dituen sariak ondokoak izango dira:

Narrazioa	Saria	A maila	B maila
	1.a	300 €	300 €
	2.a	240 €	240 €
	3.a	180 €	180 €

Olerkia	Saria	A maila	B maila
	1.a	300 €	300 €
	2.a	240 €	240 €
	3.a	180 €	180 €

Parte-hartzea bultzatu guran, **500 euroko saria** emango zaio lehiaketara ikaslerik gehien aurkezten duen ikastetxeari. Ikastetxe bakoitzak emango du aditzera dena delako ikastetxetik zenbat ikasle aurkeztu diren lehiaketara.

Horrez gain, sariok jaso dituzten gaztetxoek lanak arteztu dituzten irakasleek edo laguntzaileek **60na euroko saria** jasoko dute.

11 · Sariketako diru kopurua zatiezina izango da, eta mahaikoen erabakiz, eman barik utz daiteke.

12 · Epaimahaikoen erabakiak **2024ko apirilaren 30a** baino lehen iragarriko dira.

Lanaren jabetasuna

13 · Lan sarituen jabetza egilearena izango da, baina Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak, urtebeteren barruan, sarituriko lanen argitalpen-eskubide eskusiboa izango dute.

Argitalpenak ez du egile-eskubiderik izango, eskubide hori sariaren barruan baitago.

14 · Ezin izango da zabaldu sariei edo sarituei buruzko xehetasunik sari-emate ekitaldia egin arte.

15 · Sarituriko lanak argitaratzekotan, ezinbestekoa da irabazitako saria aipatzea.

Lanak itzultzea

16 · Epaimahaikoen erabakia jakin ondoren, saritu gabeko lanak deuseztatu egingo dira. Beraz egileei eskatzen diegu aurkeztutako lanen kopiarekin gera daitezela, euren gobernurako.

Oinarriak ulertzeko modua eta onartzea

17 · Sariketa honi buruzko itaun oro Euskaltzaindira igorri beharko da.

18 · Helegiterik bideratu barik, sariketa-deialdiaren izapidetzean sor daitezkeen gorabeherak Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxak erabaki ditzakete.

19 · Sariketa honetara aurkezten denak oinarriak onartu beharko ditu.



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

